




LITERATURA. Elena Sanchez idazlea *Epilogorik gabe* liburua eskuetan duela, atzo, Donostian. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Desilusioaren eta erresistentziaren poetika

- 'Epilogorik gabe' poema liburua kaleratu du Elena Sanchezek, Erein argitaletxearekin.
- XVI. Blas de Otero-Angela Figuera nazioarteko poesia lehiaketa irabazi zuen idazleak olerki bildumarekin.

Garazi Karrera Lopetegi

DONOSTIA—*Epilogorik gabe* jarri dio izena Elena Sanchezek (Barrakaldo, Bizkaia, 1967) argitaratu berri duen poesia bildumari. Dena den, liburuaren azken atala *Epilogo*a izendatu du. Hortaz, liburuak badu epilogorik?

Liburuaren amaiera «tranpa txiki» bat dela aitortu du idazleak: «Fernando Pessoa esan ohi zuen moduan, poeta iruzurgilea da, eta baditu lizentzia txikiak horretarako». Poema bilduma «epilogorik gabe jaio» zen, «zabalik» uztea baitzen Sanchezen hasierako asmoa. Baina gero, egileak epilogo bat «oparitu» nahi izan zion egingandako lanari, «desesperantzari esperantza izpi bat» emateko. Dena den, irakurleari bota dio erronka: «Epilogo idazteko dago, irakurleak berak idatzi behar du».

Nolanahi ere, azken hitzak idazteko, aurretik zer dagoen ikusi behar da. Beraz, zer topatuko du irakurleak poema bilduman? Inazio Mujika Iraola Ereineko editoreak azaldu du epilogoaren aurretik bi ataletan banatuta dau-

dela liburuko poemak: «Lehenahiko ezkorra da, prekaritatea, deserrotzea, ziurgabetasuna eta antzerakoak lantzen dituelako; bigarrena, aldiz, baikorragoa, ahalduzko eta erresistentziarako mezuak zabaltzen baititu».

Testuingurua bulkada

Sanchezek azaldu duenez, hasieran ez zuen liburuaren egituraren pentsatu. Baina ez da kasualitatea liburu bi zati horietan banatu izana. Liburuaren lehenengo poema 2022ko martxoan sortu zuen idazleak: «Une horretan, pandemia batetik ateratzen ari ginen. Hori gutxi ez, eta Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka gordindu egin zen. Ondotik etorri ziren Gazako genozidioa, Libano, Yemen, eta abar». Eta horri gutxiar klima larrialdia, migrazio krisia eta gizarte «sasi-anestesia» batu zitzaizkion, Sanchezen hitzetan.

«Bulkada» horretatik sortu zuten idazleak lehen poemak. «Desilusio batetik jaio dira, mundua gutxi batzuen eskuetan dagoela eta gehiengoarentzat etorkizunik

ez dagoela ikustetik». *Etorkizun* hitza lausotu dela iritzi dio, eta horrela izendatu du lehen atala: *No future* (Etorkizunik ez).

Editoreak azpimarratu du idazlearen emozio pertsonalak ageri direla liburuan, baina baita errealtate sozialak eta politikoak ere. «Garai hauekiko nahigabea islatzen dute poemek, iraganeko utopiak galdu eta amets kolektiboek porrot egin duten garaieki-koa», gehitu du Mujikak.

Bigarrena, erantzuna

Sanchezek ez zion liburuari amaierarik eman nahi. «Baina uste dut etorkizunik ez ikusteak beldurra eragin zidala eta beldur horri aurre egin nahi izan niola, itxaropenik gabe bizitzea ez bizitzea bezala baita». Orduan, Audre Lorde poetaren esaldi bat etorri

zitzaion gogora: «Beldurra ezagutzeak aske egiten gaitu». Eta ideia horri tiraka sortu zen *Belduraren tiraniaren aurka*, liburuaren bigarren atala.

Zati horretan poemek «beste kolore bat» dutela aitortu du idazleak, baita «beste tonu bat» ere: «Begirada erresilientea dago hemen: minari aurre egiten diot. Nolabait esateko, norbere ametsak urrun ikustean zerk mugiarazten gaituen pentsatzen ibili naiz, zerk mantentzen gaituen bizirik».

Sanchezek arabera, amets txikiak, borrokek eta haren babesleak osatzen dute bigarren zatia, baita musikak, literaturak eta maietasunak ere. «Erresistentzia eredu xumeak ekarri nahi izan ditut lehen lerroa, borrokatu eta iraun duten emakume idazleak, esaterako».

Idazkera estiloa eta saria

Mujikak esan duenez, estilo poetiko «erakargarri» bat erakusten du Sanchezek liburuan, «hizkuntza indartsua, irudi biziak eta metaforak baliatuz». Haren poesiak «ikusmen eta emozio esperientzia bat» eskaintzen duela uste du, eta irakurlea atmosfera ezberdinetara eramaten duela.

Sanchezek liburuan batu duen poema sorta irabazle suertatu zen XVI. Blas de Otero-Angela Figuera nazioarteko poesia lehiaketan. Epaimahaikoek «liburuaren batasun formal eta espresiboa» nabarmendu zuten, besteak beste. ●



«Desilusiotik jaio dira poemak, mundua gutxi batzuen esku dagoela eta etorkizunik ez dagoela ikustetik»

ELENA SANCHEZ
Idazlea

HITZ GUTXITAN

Erreleboa Aranzadiko etnografia atalean

ONDAREA—Maite Errarte historialariak Fermin Leizaola ordezkatzeko du Aranzadi zientzia elkarterko etnografia atalaren zuzendaritzan. Biek ala biek Gipuzkoako Foru Aldundia-aren Gordailura bisita egin zuten atzo, Goizane Alvarez Kultura diputatuarekin batera. Izan ere, Leizaola 60 urtez bilduz joan den 4.000 pieza dau- de bertan gordeta. Euskal Herriko bizimodu tradizio- naleko tresna ugari daude, tartean nekazaritzako zein arotzeriako lanabesak, egu- nerokotasunean erabiltzen ziren objektuak, zeramika herrikola, eta abar. Pieza horietako batzuk, gainera, gaur egun Euskal Herrian desagertuta dauden ofi- zio edo bizimoduei lotuta daude. Leizaolak urte luzez egingandako lana goripatu du Alvarezek.

Abian da Arkupehotsak, zazpigarrenez

MUSIKA—Zazpigarren urte- z, Arkupehotsak musika sortzaile berrien plaza antolatu du Azpeitiko (Gipuz- koa) Kulturaz Kultur koo- peratibak. Parte hartu nahi dutenek abenduaren 16ra bitarte izango dute izena emateko aukera. Formazio tekniko eta artistikoa jasotzeaz gain, kontzertu bat emango dute musikariek.

Daniel Spoerri margolaria hil da, 94 urterekin

ARTEA—94 urterekin hil da Daniel Spoerri (Gala- ti, Errumania, 1930). *Arte jangarriaren* sortzaileetako bat izan zen, eta XX. men- dearen bigarren erdiko abangoardien ordezkari nabarmena. *Errealismo berriaren* mugimenduan murgildu zen, Yves Klein eta Jean Tinguely artistekin batera. Horrez gain, dantza- ria ere izan zen.